

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AÑANAKO UDALA

Behin betiko onarpena ematea eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzari

Udalbatzak, 2016ko ekainaren 29ko bilkuran, hasierako onarpena eman dio eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantzari. Iragarkia 2016ko uztailaren 8ko ALHAOn –77. zk.– argitaratu zen, eta jendaurrean egon zen bitartean erreklamaziorik aurkeztu ez zenez gero, behin betiko onartzen da.

Beraz, Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren 16.4 artikuluari jarraituz (41/1989 Foru Araua), osorik argitaratzen da, indarrean jartzeko.

Gesaltza Añana, 2016ko abuztuaren 17a

Alkatea

JUAN CARLOS MEDINA MARTINEZ

Eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza

I. Xedapen orokorrak

1. artikulua

Udalak ordenantza honen arabera eskatuko du eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga, Arabako Lurralde Historikoko toki ogasunak arautzen dituen Foru Arauan eta zerga honi buruzko foru arauan ezarritakoari jarraituz. Ezarri beharreko tarifak jasotzen dituen eranskina ere ordenantzaren zati da.

2. artikulua

Ordenantza hau udalerrri osoan aplikatuko da.

II. Izaera juridikoa eta zerga egitatea

3. artikulua

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako tributua da. Zerga gaia da Arabako Lurralde Historikoko udalerrietan obra edo hirigintza lizentzia behar duen eraikuntza, instalazio edo obra bat egitea, baita lizentzia lortzen ez bada ere, baldin eta lizentzia ematea edo kontrol jarduera zerga ezartzen duen udalaren ardura bada.”

4. artikulua

Zergaren peko eraikuntza, instalazio eta obrak dira aurreko artikuluan ezarritako zerga egitatea gauzatzea dakartenak, eta, bereziki, honako hauek:

1. Oin berriko eraikin eta instalazio mota guztiak eraikitzeako obrak.

2. Lehendik dauden mota guztietako eraikuntzak, eraikinak edo instalazioak handitzeko obrak.

3. Mota guztietako eraikinen edo instalazioen kanpoko itxurari edo eraikinaren egitura eta itxura arkitektonikoari eragiten dioten aldatze edo zaharberitze obrak.

4. Eraikinen barruko banaketa aldatzen edo barrua bera birgaitzen duten obrak, zernahi den ematen zaien erabilera, bai eta aldez aurretik zegoen etxebizitza bitan edo gehiagotan banatzen duten obrak ere.

5. Behin-behineko izaeraz egiteko diren obrak.

6. Zerbitzu publikoak instalatzeko obrak.

7. Lur mugimenduak; esaterako, lur erauzketak, indusketak eta lubakiak, baldin eta egintza horiek ez badaude zehaztuta eta programatuta urbanizazio edo eraikuntza proiektu onartu edo baimendu batean egikaritu beharreko obra gisa.

8. Eraikuntzen eraispena, berehalako aurriaren adierazpena egin zaienetan izan ezik.

9. Aparkalekuetarako, industria edo merkataritza jardueretarako, jarduera profesionaletarako eta zerbitzu publikoetarako erabiltzen diren lur azpiko instalazioak, edo lurpeari eman nahi zaion beste edozein erabilera.

10. Edozein obra, eraikuntza eta instalazio, ahalmen ekonomikoaren erakusgarri diren baliabide ekonomikoen inbertsioa ekarriko dutenak eta obra edo hirigintza baimena lortu beharra dutenak.

5. artikulua

Ez zaie zerga hau ezarriko higiezinetan egindako eraikuntza, obra eta instalazioei, haien jabari titulartasuna udalarena bada, eta udala bera bada obren jabea.

III. Salbuespenak

6. artikulua

Zergatik salbuetsita egongo dira:

a) Zergari lotuta egon arren, eraikuntza, obra edo instalazioaren jabeak estatua, autonomia erkidegoak, lurralde historikoak edo toki erakundeak badira, ez zaie ezarriko zergarik, baldin eta zuzenean errepideak, trenbideak, aireportuak, obra hidraulikoak, herrietako eta bertako hondakin uren saneamenduak egiteko badira, nahiz eta organismo autonomoek kudeatu, eta berdin inbertsio berriko obrak direnean zein mantentzeko direnean.

b) Eraikuntza, instalazio edo obraren jabeak Arabako Lurralde Historikoko kontzejuak badira ez zaie zerga ezarriko, haren helburua zerbitzu edo erabilera publikoa denean.

c) Ureztatzeko sistema jartzeko egiten diren eraikuntzak, instalazioak eta obrak, baldin eta Arabako Foru Aldundiak onartutako Ureztatzerako Planaren barruan badaude. Salbuespen hau ureztatzeko sistema ezartzeko zein artatzeko eraikuntza, instalazio eta obrei aplikatuko zaie.

d) Monumentu izendapena duten ondasun higiezinetan egin beharreko eraikuntza, instalazio eta obrak, edo Euskal Kultura Ondareari buruzko Legearen 2. artikuluko 2. idatz zatiko a) eta b) letretan aipatutako monumentu multzo batean egin beharrekoak (7/1990 Legea, uztailaren 3koa).

e) Ogasun Ministerioaren 2001eko ekainaren 5eko Aginduz, eta Estatuak eta Egoitza Santuak gai ekonomikoetan egindako hitzarmenaren bertutez, zerga horretatik guztiz salbuetsita daude parrokiak eta elizak.

IV. Subjektu pasiboak

7. artikulua

1. Hauexek dira zerga honen subjektu pasiboak, zergadun gisa: higiezin batean egiten den eraikuntza, instalazio edo obraren jabe diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako erakundeak, higiezinaren jabe izan zein ez.

Aurreko paragrafoan araututakoaren ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabetzat joko da haiek egiteak dakartzan gastuak edo kostua ordaintzen dituen.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez badu, beraren ordeko subjektu pasibotzat joko da eraikuntza, instalazioa edo obra egiteko baimena eskatzen duena edo erantzukizunpeko aitortpena edo aurretizko berriematea aurkezten duena edo eraikuntza, instalazioa edo obra egiten duena.

Ordezko subjektu pasiboak ordaindutako zerga kuota eskatu ahal izango dio zergadunari.

V. Zerga oinarria

8. artikulua

1. Zergaren oinarria da eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren kostu erreal eta benetakoa, eta halakotzat hartzen da, ondorio horietarako, gauzatze materialaren kostua.

Ez dira zerga oinarrian sartzen balio erantsiaren gaineko zerga; araubide berezietako berezko beste antzeko zergak; ezta ere eraikuntza, instalazio edo obra horiekin loturiko tasa, prezio publiko eta ondare prestazio publiko eta tokian tokikoak; ez eta profesionalen soldatak, kontratistaren enpresa etekinak, eta, zorrotz hartuta, gauzatze materialaren kostuan sartzen ez diren gainerako kontzeptuak ere.

VI. Zerga kuota

9. artikulua

Zerga honen kuota, zerga oinarriari eranskinean zehazten den karga tasa aplikatzearen emaitza izango da.

VII. Hobariak

10. artikulua

Ehuneko 80ko hobaria, ezaugarri historiko-artistikoengatik interes edo udal erabilera berezikotzat izendatutako eraikuntza, instalazio edo obren alde.

Ehuneko 90eko hobaria egongo da ezinduen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten eraikuntza, instalazio eta obretan.

VIII. Sortzapena

11. artikulua

Zergaren sortzapena eraikuntza, instalazioa edo obra hasten denean gertatuko da, nahiz eta baimenik ez eduki.

IX. Kudeaketa

12. artikulua

Aginduzko lizentzia ematen denean edo erantzukizun aitortpena edo alde aurreko jakinarazpena aurkezten denean, edota oraindik baimena eskatu, eman edo ukatu ez bada edo aitortpen-jakinarazpenak aurkeztu ez badira eta hala ere eraikuntza, instalazioa edo obra hasi bada, behin-behineko likidazioa egingo da eta zerga oinarria zehaztuko da, interesdunek aurkeztutako aurrekontuaren arabera, betiere dagokion elkargoak behar bezala ikus-onetsita badago; bestela, udal teknikariek zehaztuko dute zerga oinarria, proiektuaren kostu estimatuaren arabera.

13. artikulua

Behin baimena emanda hasierako proiektua aldatzen bada, beste aurrekontu bat aurkeztu beharko da, behin-behineko beste likidazio bat egitearren, hasierako aurrekontuari gehitu zaion zenbatekoaren arabera.

14. artikulua

1. Benetan egindako eraikuntza, instalazio edo obrak ikusita, eta horien kostu erreala eta benetakoa kontuan hartuta, udalak, hala dagokionean, kasuan kasuko administrazio egiaztapenaren bidez, zerga oinarria aldatuko du, eta behin betiko likidazioa egingo du eta subjektu pasiboari dagokion zenbatekoa eskatuko dio, edo, hala badagokio, itzuli egingo dio.

2. Aurreko paragrafoan ezarritakoaren ondorioetarako, obra amaitu edo obraren behin-behineko onarpena eman eta hurrengo hilean, horren aitorpena aurkeztu beharko da udal administrazioak emandako inprimakian. Horrekin batera, obraren zuzendari fakultatiboaren ziurtagiria aurkeztuko da, dagokion elkargo profesionalak ikus-onetsia, ahal denean; bertan, obraren kostu osoa ziurtatuko da, proiektuaren eta zuzendaritzaren eskubide fakultatiboak, industria onura eta hortik sortutako gainerako eskubideak barne.

15. artikulua

Zergaren likidaziorako, ondorio berak edukiko dituzte administrazio isiltasun positiboaren bidez ematen diren baimenek eta berariaz ematen diren baimenek.

16. artikulua

Udalak autolikidazioaren bidez eskatu ahal izango du zerga hau.

17. artikulua

Baimen baten titularrak obra, eraikuntza edo instalazio baimenduak egiteko asmoa bertan behera uzten badu eta hori idatzizko uko egitearen bitartez adierazten badu, udalak egindako behin-behineko likidazioa itzuli edo guztiz baliogabetuko du.

18. artikulua

Baimena iraungitakoan, egindako likidazioa itzuli edo baliogabetu egingo du udalak, salbu eta titularrak hura berritzeko eskatu eta udalak baimena ematen badio.

Xedapen gehigarri bakarra

Zerga honen araudian aldaketarik egiten bada Estatuaren aurrekontu lege orokorren bitartez edo beste lege edo xedapen batzuen bitartez, eta aldaketa horiek zuzenean aplikatzekoak badira, adituko da, hala balegokio, zerga ordenantza hori isilbidez aldatu dela.

Azken xedapen bakarra

Ordenantza aldatu hau eta bere eranskina, zeintzuk 2016ko ekainaren 29an amaitu onartu baitziren betiko, ALHAOn osorik argitaratzen diren egunaren biharamunean jarriko dira indarrean, eta hala jarraituko dute harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

I. Eranskina. Zerga tasa

Zergaren kuota, eraikuntza, instalazio eta obra mota guztietarako, zerga oinarriari ehuneko 4,5eko karga tasa hau ezartzearen emaitza izango da.